


# piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 81. alea 2003ko abenduaren 23a



Urtebarri, barri  
txarri belarri  
daukanak ez daukanari  
zakua bete madari!





Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean

# GOL

GOL industriak S.A.

Sagar Erreka, 19 45 PK  
Telefona: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
20590 SORALUZE

## 2003 Gugan konfidantza jarri duzuen iragarle guztioi

Industrias Gol  
Soraluce koop.  
Euskadiko Kutxa  
Kutxa  
KZ Gunea  
Udaleko Euskara Zerbitzua  
Plaentxi H,I  
Aras S.L  
Etxehun  
Pascual Txurruka  
Laudin  
Fer  
Erosle  
Belarrak  
Juan Mari Arrandegia

Iñaki Etxabe Harategia  
Jon Iñarra Harategia  
Javier Alberdi Harategia  
Mendizabal  
Kontulan Aholkularitza  
Elizpe  
Javier Alonso Hartz Klinika  
Lakuesta Optika  
Vidal Frutadenda  
Bolia  
Arrano  
Mendata  
Gila  
Txoko  
Armendia Jatetxea

Edurtza  
Gaztelupe  
Txurruka jatetxea  
Instalaciones Kalebarren  
San Andres Iturgintza  
Itur Iturgintza  
Electricidad Lau  
Gogortuz Fisioterapia  
Kiru Muntaiak  
Benito Alzariak  
Limpiezas Trejo  
Gaztelupeko hotsak  
Debegesa  
E.A.J /P.N.V  
Soraluzeko Askatasun Haizeak

**Eskerrikasko eta urte berri on!**







## Irakurri nahi duenari...

GURUTZE ARIZNABARRETA

Nazka-nazka eginda nago!!!! Telebista piztu eta iragarkien tarteak nauka zeharo biguinduta eta kezkatuta!!! Berdin-berdin jarraitzen dugu! Iragarkien munduan, irensten dugun munduan, ezer gutxi aldatu da!! Arrosaz jantzitako ume pinpirina apurkorrak panpinekin jolasten jarraitzen dute eta eszenan agertzen diren bihotzek eta motibo horterek ez dute akaburik. Ah!! baina ez ditzagun ahaztu gure manporrero faboritoak, etorkizuneko gizontxoak!! Gabon inguruko opariak erasora datoz, gupidagabeki umeak bere sareetan harapatzera eta Olentzero krudeltzera Aiii Olentzero, animo!!! Zenbat buruhauste eeh!! Ez da erreza, ez!! Etxe bakoitzeko txikitxoak ondokoa baino gutxiago izan ez dadin esfortzu bat egiten ibiltzen zara beti, eta hala eta guztiz ere, umeen arteko desberdintasunak areagotu besterik ez dira egiten. Aaaaah! Modak zauzka lepotik helduta jakina! Zenbat patinete lortu behar izan zenituen azken gabonetan? Ganbaran dau denak hautsa hartzen!! Ez da erreza ez! Batez ere patineteekin batera ganbara guztiak jostailuz gainezka daudelako. Zer asmatu behar ote duzu eta zenbat ordaintzera heldu beharko ote zara gure umeak ilusionatzeko? Alferrik da Olentzero! mundu zurribilotsu honen atzamarretatik ihes egiten ez

duzun bitartean, alferrik izango da! Ausart jokatu beharko duzu, guzti honetatik nortasunez irteteko balentriaz jokatu beharko duzu! Horixe eskatzera natorkizu, atrebentzia handia ez bada behintzat. Liburuaren aldeko apustua egin dezazun eskatzera nator. Duela gutxi norbaiti galdetu nion ea beretzat liburu bat zer zen. Zera erantzun zidan: lagunik onenak ere ez dira beti aldamean egoten, baina liburu bat... inoiz bakarrik lagako ez zaituen laguna da. Lagun jakintsua gainera, dena dakiena eta bere sekretuak kontatzeko beti atak zabalik dituen.

Olentzero, animo!!!!... Ume bakoitzari liburu bat, ipuintxo bat, lagun bat erregalatzeaz gain, zure denbora preziatuaren unetxo bat ere erregalaiez zaituzte lagun hori maitatzen irakasteko. Hori bai erregalua, bizitza guztian eskertuko dizuna eta bizitza guztirakoa. Mundu bat jarriko diozu esku-eskura, badakizu eta liburuetan den-dena dagoela. Orduan, orduan izango du erregaluri xumeenak urrearen benetako balioa.

Ez dugu irakurtzen ikasten letrak josten eta interpretatzen ikasten dugunean, irakurtzen ikastea, hori baino zerbait gehiago da, irakurtzen ikasteak interesa piztearekin du zerikusia! Olentzero... ez huts egin!! animo!!!!

## Telegrapak

Kaixo irakurle!. Stop. Margaritari zorionak. Stop. 100 urte harrapatzia. Stop. zorte kontua be izango da. Stop. berak ezetz diño. Stop. zorte txarra dala. Stop. probatu arte ezin jakin. Stop. bestela zer dagan badakigu. Stop. bakerik baketsuena. Stop. infernua desagertu zan. Stop. baina oindio bildurra nagusi. Stop. zer dala eta?. Stop. berriz jaioko gara barren?. Stop. Jesusen moduan. Stop. je,je,je!. Stop. Zorioneko Jesus!. Stop. gabon kanta danetan dator. Stop. danetan ez. Stop. Hator hator-en ez. Stop. jakingo dozue zergaitik ez?. Stop. ji,ji,ji!. Stop. gabon gabian jarri zure bikotiaren onduan eta kantatu. Stop. igarriko dotsazu orduan. Stop. badator urte barrixa. Stop. eta badoia zaharra. Stop. "Txantxangorria txantxate. Stop. birigarrua alkate. Stop. xoxua dala mediante. Stop. txepetxa preso sartu dute". Stop. adituak diñue. Stop. Greziar garaiko esaera dala. Stop. eta urte barrixaren sinbolo dan txantxangorria eta urte zaharraren sinbolo dan txepetxaren inguruan diharduela. Stop. aldagai asko dare Europa osuan eta euskaldunok be badaukagu geuria. Stop. Izan deila ba 2004a benetako Urte Barrixa. Stop. bere udaberri eta guzti!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU  
pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio burua:** Egoitz Unamuno

**Erredaktoreak:** Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

**Publizitatea:** Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

**Logotioa:** Jon Gabilondo  
(943751304 tel.)

**Banaketa:** Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop.

**Azala:** Pablo Galarraga

**Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid

**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

*Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.*

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZeko  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA



**Abenduaren 24an,  
goizeko 12:00etan,  
Plaza Barrian izango dira  
Olentzero eta Mari Domingi**

## Zorion agurrak



**Ianire Makinai**  
Abenduaren 16a  
ZORIONAK!! ...  
Muxu haundi bat!  
Ana eta gurasoen  
partetik.



**Garazi Catalan**  
Abenduaren 29  
ZORIONAK!!  
Oso ondo pasa zure  
egunian ta muxu  
haundi haundi bat!!  
Etxekuen partetik.



**Enara Agirre**  
Urtarrilaren 10a  
ZORIONAK!!  
Pil-pileanekuen par-  
tetik.



**Alba Perez**  
Abenduaren 16a  
ZORIONAK!!  
Gure potxolatxo  
ze haundixa egin  
den. Muxuak!  
Etxekuen partetik.



**Petra Uranga**  
Abenduaren 28a  
ZORIONAK!!  
Muxu haundi bat!  
Patxi, Iñigo par-  
tetik.



**Markel  
Hontangas**  
Abenduaren 12a  
ZORIONAK!!  
Ondo pasa eguna,  
jarraitu zaren  
bezelakua izaten  
Etxekuen partetik.



**Miren Alberdi**  
Abenduaren 6a  
ZORIONAK!!  
Etxeko neska  
politinari.  
Muxuak!!!!  
Etxekuen partetik.



**Dabid Elizburu**  
Abenduaren 13an  
33 urte  
ZORIONAK!!  
Egun eder bat pasa-  
tu deizula!  
Muxuak! Etxekuak.



**Miren  
Aranzamendi**  
Abenduaren 17a  
81 urte  
ZORIONAK!!  
Etxekuen partetik.



**Dolores Nieves**  
Abenduaren 18a  
ZORIONAK!!  
Muxu haundi bat  
eta zorion asko!!  
Zure familiaren  
partetik.



**Sheila Merino**  
Abenduaren 31a  
ZORIONAK!!  
eta muxu asko!  
Aita-ama eta gai-  
nontzeko senitar-  
tekuen partetik.



**Aitor Gil**  
Abenduan 15ean  
ZORIONAK!!  
Bazoiak eh!  
Bialdu postalak  
eh! Muxu asko!  
Etxekuen partetik.



**Ander  
Santamaria**  
Abenduaren 16an  
27 urte  
ZORIONAK!!  
Muxu haundi bat!  
Lagunen partetik.



**Jesus Oregi**  
Abenduaren 22an  
27 urte  
ZORIONAK!!  
Ia noiz sartzen  
duan golen bat!  
Lagunen partetik.



**Xuban Catalan**  
Abenduaren 30ean  
25 urte  
ZORIONAK!!  
Muxutxubek!  
Pil-pilean eta  
etxekuen partetik.



**Iñtza Garate**  
Abenduaren 24an  
2 urte  
ZORIONAK  
pototi!! Muxuak  
polit hori!  
Etxekuen partetik.

**Constantino Otero**

Abenduaren 31a  
ZORIONAK!!  
Urteak orain arte bezain ondo eta  
indartsu eraman dituzula opatuz.  
Tony eta etxekuen partetik.

## Gazte Informazioa

## LANA

**Soraluzeko Kiroldegian**

Soraluzeko Kiroldegian tabernako barrako zerbitzaria eta garbiketeta-rako pertsona bi behar dira. Interesatuok Kiroldegitik pasa lan eskaera egitera.

**Sukaldari Laguntzailea**

Bergaran sukaldari laguntzilea behar da. Domeketan jai. Telef. 943761559

**Informatikari-lanpostua**

Bergarako Udalak, informatikari pos-tua oposaketa libre bidez betetzeko deialdia egin du. Baldintzak: informati-kako diplomatu-titulua edo ingeniari teknikoaren titulua izatea. Epea: abenduak 29 Telefonoa: 943769100

## IKASTAROAK

**Aisialdiko Begirale Ikastaroa**

Urtarriletik ekainera zapaturo Arrasateko aterpetxe batean. Telef. 943795446 (Txatxilipurdi Elkarte)

## DENETARIK

**Txakurra galdu da**

Joan zen ostiraletik Izarre baserriko ardi txakurra falta da. Iletsua eta gris kolorekoa da. Bere berri dakienak deitu dezala: 943 751262 telefonora (Pedro Mari).

**LAUDIN**  
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g      ff: 943 752 150  
138 Postakutxa      Faxa: 943 752 118

**SORALUZE**

**TXOKO  
KAFETEGIA**



*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarraren 22 behean, telef: 943751289

**Etxebarri®**  
etxehun

Barra kargadore automatikoak  
eta makina bereziak

**ETXEHUN, S.A.L.**

Mendiola Industrialdea 14-5  
Tfnoa 943 75 18 91  
Faxa 943 75 24 58  
E - maila: etxehun@teletelne.es  
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE  
Gipuzkoa

Telefona 75 24 09

**ARRANO**  
*tabernia*

*"Giro euskalduna eta sanua"*

**ETORRI ETA GOZATU**

 **etxera**  
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

## Zer irizten dotsazu?

Azken asteotan, hauts asko harrotu ditu Europar Batasunak Euskal Ya lehentasunezko azpiegituren zerrendan sartu ez izanak. AHTa egiten hasteko data zehazteko arazoek garraio bide honen inguruko aldeko eta aurkako eritziak sorrarazi dituzte gizartean.


# Azkartasun Handiko Trenaren inguruan ze eritzi daukazu?



Mª Jesus Zabaleta  
51 urte  
Botikarixa  
Alde batetik, naturari egingo dotsan kaltia dago, baina nik uste dot trena jartziak komunikaziñua hobetuko dabela zeharkatzen dittuan lurraldietan. Garbi daguana da ezin dala naturari kalterik egin barik lortu hori.



Edurne Unamuno  
25 urte  
Irakaslia  
Autopistiakin gertatu dan moduan, azkenaldixan, bihar ez dittugun azpiegitura haundixak jartzen dihardue, gure erosotasunerako izango diran aitzakixan. Uste dot arazo honen aurrian mobilizatu egin biharko ginakela.



Jurgi Rascon  
20 urte  
Ikaslia  
Eragin ekologiko ikaragarrixa eragingo leuketa eta ez dot uste komunikazioa larregi hobetuko litzatekenik guretako. Diru mordo bat balio duten bi infraestruturax handi dira, eta nere ustetan soberan dare horrek.



Txaro Maiz  
55 urte  
Etxekoandria eta zaintzailia  
Etxekoandria eta zaintzailia. Nik uste dot komunikaziñua hobetuko leukela. Natura eta trena bateraeziñak dira. Pentsatzen dot gaur egun badarela beste garraio modu batzuk, komunikazio ona mantentzeko balio dubenak.



Federiko Bengoa  
78 urte  
Jubilatua  
Neri ondo iruditzen jata AHTia jartzia. Eragingo dittuan kalte ekologikuen berririk ez daukat, eta horren iritzirik ezin dot emon.



Mario Lopez  
42 urte  
Komertziala  
Nik uste dot gaur eguneko aurrerapenarendako biharrezkua dala AHTia ipintzia. Seguru nago autopistiak bes-teko kalte ekologikorik ez dabela sortuko. Pentsatzen dot jentiak erabiliko dabela.



Instalazioak  
Berrikuntzak



## Kiru Muntaiak S.L.

**Blas Elizburu Kortabarria**

Sukalde, enpotratu  
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara  
Tfnoa 943 75 13 12  
Eskuko tfnoa 615 70 27 65



## Eibar-Gasteiz autopistaren irekiera

Joan zen larunbat eguerdian ireki zuten Eibar-Gasteiz autopistaren lehenengo zatia. Eibartik Bergarara bitartean irekitako errepide zatiak 7,2 kilometro ditu eta herri batetik bestera bost minutu inguruan iristeko aukera ematen du, 0,70 euro ordainduta.

Errepide zati hau egiten, guztira 145 miloi euro gastatu dira, lau urte eta zazpi hilabete behar izan dira eta ia hiru miloi metro kubiko mugitu dituzte. Gogoratu beharrekoa da, hala ber, sei langilek galdu dutela bizia eraikitze lanetan.

Irekiera ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako agintariek gain, autopista igarotzen den herrietako alkateak ere izan ziren, Soroluzekoa tartean, eta guztiek goraiatu zuten autopistak inguruko herrietan eragingo duen gargarpen ekonomikoa.

Aurreko egunean autopistaren aurkako manifestazioa izan zen Bergaran. "Ama lurra defenda dezagun! Eibar-Gasteiz autopistari ez!" lemapean Bergara, Soroluz eta Eibarko gazteek parte hartu zuten bertan.



## "Soroluzeko Kirol Elkarte" k izango du datozen bi urteetan Kiroldegiko kudeaketaren ardura

Joan zen ostegunean egin zen Udal Batzarrean, Udalak datozen bi urteotan Arane Kiroldegia kudeaketaren ardura, "Soroluzeko Kirol Elkarte" enpresari ematea erabaki zuten. Erabakia, EAJ, EA, PSEE eta PPren aldeko 8 boturekin eta AHren aurkako 2 boturekin onartu zen. AH, Kiroldegia kudeaketa enpresa pribatuaren esku uztea kritikatu zuten, kudeaketa publikoa izan beharko lukeela aldarrikatuz.

Urtariletik aurrera Kiroldegia kudeatuko duen enpresa berria, soroluzetar batek, Egoitz Portuk, eta beste 3 eibartarrek osatzen dute. Egoitzek adierazi digunez, Kiroldegiko eskeintza ugaritu eta herriko kirol giroa bizitzea da euren asmoa. Epe motzera begira, gimnasioan egun osoko jarraipena egingo duen monitore bat jartzea, "spining, estrecing eta quemacalorias" bezalako ariketa mota berriak eskeintzea eta "urtebeteko umeandako igeriketa eskola" sortzeko asmoa dute. Epe luzera begira, ro-kodromo bat ezartzeko aukera ere aztertu nahi dutela jakinarazi digu Egoitzek.

## Lapurreta Olako Tornidecon

Udaltzaingotik jakin ahal izan dugunez, joan zen abenduaren 11 eta 12 bitarteko gauean, lapurreta bat gertatu zen Ola auzoko Tornidecon enpresan. Pertsona bat sartu eta bi telefono mugikor eta dirua eraman omen zituen. Hurrengo egunean, Ertzantzak lagunduta atxilotu zuten lapurretan egin zuen soroluzetarra. Aurretik ere behin baino gehiagotan egin omen du lapurretan eta "Proiektu Hombren" sartzeko aukera eskeini diote.

## Margarita Larrañagak 100 urte

Margarita Larrañagak 100 urte bete zituen abenduaren 11an. Urtebetetze berezi hau ospatzeko, Udalak oroigarri bat eta lore sorta bat eman zizkion Margaritari. Senitarteko ugari ere hurbildu zen erresidentziara zorionak ematera. Bejondeizula!



## Belarrak

Loradenda  
eta belardenda

*Erosketak etxera  
eramango dizkizugu*

Telf. 943 75 30 11

## GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34





# Aurten eguerdian jasoko dituzte eskutitzak Olentzerok eta Mari Dominginek

Aurten, Plaentxi Herri Ikastetxeak eta Pil-pilean Kultura Elkartek bat egin eta Olentzero eta Mari Domingin harrera ekitaldia batera antolatzea erabaki dute. Dagoeneko Olentzero eta Mari Domingin jakinaren gainean daude eta herriko umeen eskutitzak eguerdian jasoko dituzte aurten.

Olentzero eta Mari Dominginen etorreraz gain, badira egunotan herriko hainbat elkarte antolatutako beste hamaika ekitaldi. Jakinarazi beharreako da (baserritarrei bereziki), aurten ez dela Gabonetan baserriz baserri koplak katurako eta eskerako talderik aterako, Olentzerori eta Mari Domingini harrera egiten nahikoa lan izango omen dute eta.

Bestalde, azken orduan oparirik gabe dabilzanentzat, Pil-pilean eta Gaztelupek disko eta liburu eskeintza berezia jarri dute aukeran.



## GABONETAKO AGENDA

### ABENDUAREN 24AN, ASTELEHENA Olentzero eta Mari Domingiren etorrera

- 11etan kantu-kalejira herrian zehar. (*Plaentxi H.I.*)

- 12etan Ongi etorria eta eskutitzak jasotzea Plaza Barrixan. (*Pil-pilean*)

- 17:00etan, Olentzero preso kalez kale. Euskal Presoen Euskal Herri-ratzea eskatuz. (*Askatasuna*)

- 17:00etan, abesbatzaren kontzertu Zaharren Egoitzan.

- 18:30etan, "Perosiren pontikala" abestia elizan. (*Ezoziko Ama Abesbatza*)

- 18:30etatik aurrera Gabonetan oparitzeko disko eta liburuak, Pil-pilean eta Gaztelupeko Hotsak-en eskutik.

### ABENDUAREN 26AN, OSTIRALA

Pin-pon Txapelketa  
- 16:30etan kiroldegian.  
DBHko ikasleendako.  
(*Gurasoen Elkartea*)

- 20:00etan Abesbatzaren Gabon Kontzertua elizan. (*Abesbatza*)

### ABENDUAREN 27AN, LARUNBATA

Eguberrietako Haur Parkea  
- 11etatik 13etara eta arratsaldeko 4retatik 7etara kiroldegian. Puzgarriak, gargantua... (*Udala*)

### ABENDUAREN 30, ASTEARTEA

"Gabonetan Ipuin Kontari".  
Ipuin kontalaria  
- 11:00etan 2-6 urtekoak  
- 11:45etan 7-11 urtekoak liburute-

gian. (*Udaleko Euskara Zerbitzua*)

- 16:00etan, Filma Emanaldia gaztetxoendako abadetxeko Kapillan.  
(*Gurasoen Elkartea*)

### ABENDUAREN 31, ASTEAZKENA

Ipuin kontalaria  
- 11:00etan 2-6 urtekoak.  
- 11:45etan 7-11 urtekoak liburute-gian. (*Udaleko Euskara Zerbitzua*)

### URTARRILAK 5, ASTELEHENA

Errege Kabalgata  
Arratsaldeko 7etan, herrian zehar.  
(*Beti Prest*)

(*Gaztetxeko Kultur Hamabostaldiaren berri hurrengo orrialdean*)

Argitalpen honen laguntzaile



**kutxa**  
zuri esker



**EDURTZA** kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko  
menua eta  
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze





Ezkerretako irduian, Soraluzen dauden ekuatoriar gehienen jatorrizko "Guayakil" herriko eleiza. Eskuinean goian, joan zen larunbatean aukeratu zituzten; Belengo Izartxoa, Printzesatxoa (bere mutiltxoa) eta Maitagarria. Eskuinean behean, ekuatoriarren elkarte sortzeko bidean aukeratu duten zuzendaritza.

## Ekuatoriarren Gabon Jaia

Soraluzeko ekuatoriar komunitateak Ekuadorko herrietan ohitura den "La Princesita"ren aukeraketa jaia antolatu zuen joan zen larunbatean. Printzesatxoa, herriko neskatila ekuatoriar guztien artean aukeratu zuten nagusiek "botazio demokratikoz" eta berarekin batera, bere mutiltxoa, Belengo Izartxoa eta Maitagarria ere izendatu zituzten. Antolatzaileetako batek azaldu zigunez, ohitura hau, Jesusen Jaiotzarekin lotua dago eta berez abenduaren 24 an ospatzen bada ere, eurak 20an egitea erabaki dute, 24an gehienak lan egiten dutelako eta egun horretan hemengo ohiturak ere

ezagutu nahi dituztelako.

Jaia larunbat arratsaldeko 20:00etan hasi zuten Batzokiko jantokian eta neskatila eta mutikoaren aukeraketa egin ostean, afaldu eta dantzan egin zuten.

Jai hau aurten antolatu dute lehen aldiz, aurten eman dituztelako euren artean elkartu eta elkarte bat sortzeko lehen pausoak. Elkarte honen bitartez, euren arteko hartuemanak eta hemengo kulturarekiko integrazioa eta elkar ezagutza bultzatu nahi dituzte, euren esanetan, horixe bait da, elkar ezagutzea alegia, "elkarbizitza on baterako sekre-

tua". Dagoeneko aukeratu dute Zuzendaritza Batzorde bat eta orain elkarte osatzen hasteko asmoa dute.

Hasiera baten, jai publiko antolatu nahi zuten kalean, Bartzelonatik Ekuadorko musika talde bat ekarri eta hemengo herritarrei parte hartzeko aukera eskeini. Asmo horretxekin jo zuten Udalarengana baina ezezik biribila jaso ostean, azkenean ekitaldi pribatua antolatzea erabaki zuten. Datorren urtean, lehenagotik prestatzen hasi eta soraluzetar denei euren ohitura eta jatorriaren berri erakustea da euren asmoa.

Viva Ecuador!



**Jose Antonio S.L.**  
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49  
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)



**EGUNKARIA**  
**ETXERA ERAMATEN DIZUGU**  
**GEHIAGO ORDAINDU GABE**

ETXABURUETA, 4  
20590 SORALUZE  
telefonoa: 943 75 13 20



Urtero moduan, aurten ere, urte zaharraren amaiera eta hasiera bitartean, Hamabostaldi Kulturala antolatu du Gaztetxeak.

Antolatzaileetako batek azaldu digunez, "aurtengo urtia aldaketa urtia izan da Gaztetxian, jende gaztia aktiboki parte hartzen hasi da asanblea eta Gaztetxiaren eguneroko lanetan eta poliki poliki talde polita osatzen doa".

Aurreko, "Sendero aborigen" hitzaldia, Punk kontzertua, "Eneko Harritza" filmea eta sexualitate ikastaroa izan dituzte Gaztetxean baina oraindik ereizango da zerekin gozatu datozen egunetan..



Joan zen egunean, jende mordoxka batu zen "Sendero Aborigen" hitzaldira.

Abenduak 25 (eguna)  
Bideo Emanaldia : " BOWLING FOR COLOMBINE"

Kontzertua :

LEGEN BELTZA  
IRAINA  
EKO 4

(Sarrera 3 Euro)

Abenduak 27 (zapatua)  
Mendi garbiketa (goizeko 8:30-etan)

Kontzertua 23:00etan:

Arrasateko EMBOSKADA  
Legazpiko MALAS HIERBAS

(Sarrera 3 Euro)

Abenduak 28 (domeka)  
Kontzertua 22.30etan :

SUPER COOL  
FLY SHIT

(Sarrera 3 Euro)

PRESO, DEPORTATU ETA  
ERREFUXIALIATUEN ASTEA

Abenduak 29 (astelehena)  
Hitzaldia 19:00 tan : ADIN TXIKI-KOEN LEGEA-ren ingurukoa.

Abenduak 30 (martitzena)  
Hitzaldia 19:00 tan : ETXERAT-ekoen eskutik GURE PRESOAREN INGURUKO EGOERA-ri buruzkoa

Urtarrilak 2 (barikua)  
Kontzertua :

CHICOS BOOM!  
CRETINOS

Urtarrila 3 (zapatua)  
Umorezko parodiak 19:00 etan : GRUPO DE TEATRO DADAISTA MASCARA ESTOICA

Urtarrila 4 (domeka)  
Kontzertua 22:00 etan : MATXURA

(Igande arratsaldero, 19:30 aldera filmeak izango dira ikusgai.)

## Feo Bergararra garaile rallyan

Joan zen abenduaren 13an banatu zituen Kontrargi Argazki Taldeak aurtengo Rallyiari zegozkion sariak. Aurtengoan, 26 partehartzaile izan dira Rallyan eta Kontrargikoak gustora daude. Jose Ramon Rodriguez eta Jose Mari Larrañaga "Txistu" epamahirikideek honela erabaki zuten sailkapena:

- 1.- Jose Luis Feo (Bergara) 83 puntu
  - 2.- Iñigo Korta (Azpeitia) 82 puntu
  - 3.- Mikel Castelo (Bergara) 80 puntu
- \* Herriko onena Mikel Valero 79 puntu



Sari banaketa kiroldegiko erakusketa gelan.

## Antzerkia, poesia eta musika lantzeko aukera

Azaroaren 14n egindako afari-batzarrean, RK Zulo taldeak, datorren urtean jaialdiaz gain, urte guztian zehar sorkuntza artistikoa bultzatzeko erabakia hartu zuen. "Comite de base" izeneko talde eragilea sortu zen eta abenduaren 14 arteko epea jarri zuten nahi zuenak nahi zuen ideia aurkezteko. Ideiak jasota, dagoeneko 15 pertsonak eman dute izena antzezlan baten prestakuntzan parte hartzeko, 8 musika talde eratu dira eta poesia talde bat osatzeko bidean dira. Hauetako ekimenen batean parte hartu nahi duenak "zabal zabalik" omen ditu atearik.





Jose Ignacio Telletxea (historialaria), Montserrat Fornells (Museoaren Lagunak elkarteko zuzendaria), Ramiro Larrañaga eta Nerea Alustiza (historialaria eta Eibarko Udaleko zinegotzia). Goian, ezkerreko irudian, San Telmoko Ohorezko Bazkide plaka eskuetan duela ageri da zuzendariarekin eta eskuinekoan, Soralezeko Udalaren oroigarria jasotzen alkatearen eskutik.

## Ramiro Larrañaga San Telmo museoaren Ohorezko Lagun izendatua

*San Telmon batu zirenek, bere ibilbidea gogoratzuz, euskal armagintzaren historia aztertzen egindako lana eskertu nahi izan diote Ramirori.*

Abenduaren 10ean, Donostiako San Telmo Museoaren Lagunak elkarteak Ohorezko Lagun izendatu zuen Ramiro Larrañaga soralezetar historialaria. Montserrat Fornells Museoaren Lagunak elkarreko zuzendariak azaldu zuen, izendapenarekin, aitortu eta eskertu nahi izan diotela, besteak beste, armagintzaren historia aztertzen egindako lan eskerga eta baita museoari berriki egin dion armagintzako tresneriaren donazioa ere. Baita goratu ere, "bere gizatasun maila eta eskuzabaltasuna".

Bi lankideen laudorioak

Izendapen ekitaldian, berarekin harremana izan duten bi lankide ere izan zituen ondoan.

Jose Ignacio Telletxea historialariak, Ramirok 1981ean argitaratu zuen "Armeria Vasca" liburuan egindako datu biltzeta izugarria azpimarratu zuen. Liburu honek dituen 576 orrialdetan jasota dauden datuak bilatzeko artxiboetan (Simancas) egindako dokumentazio lana harrigarritzat jo zuen. Euskal historiografian burdingin-

tzaren historiaren barruan armagintzaren alorrari Ramirok egin dion ekarpenaren garrantziaz gainera lan guzti hau bere lanak uzten zion aisialdiko denboran egin izana "miresgarria" dela aitortu zuen.

Nerea Alustiza eibartar historialariak, oraindik ikasle zela zalantza batzuek argiterra Ramiroengana jo zuenetik ezagutu zuen bere izaerari dagozkien zaugarrien berri eman zuen. Ramiro bere "maisutzat" hartzeaz gainera, bere lanak Eibarko armagintzaren berri izateko duen garrantzia azpimarratu zuen. Mundu osotik Eibarrera etortzen diren armagintza tradizionalako enpresari eta

adituek eskatzen omen dute informazioa eta Ramiroren lanak informazioa eskura izateko aukera ematen omen die.

Ramiroreneskerrona

Azkenerako Ramirok berak hartu zuen hitza eta "arratsaldeon danori!" batekin hasita, bere bizitzan zehar museoekin izan duen harremanaren kontakizuna egin zuen, bertan batutako jendeari eta museoari, izendapena egitearren, esker-erak emanaz.

Ondoren, Museoaren Lagunak elkartearen zuzendariak, Ohorezko Lagun izendapenaren plaka eman zion, Eibarko Udalak Udaletxearen irudia jasotzen

zuen margolan bat eta Soralezeko Udalak burdinean landuta Soralezeko herriaren erdialdea irudikatzen duen oroigarri bat. Ramirok bere aldetik, Soralezeko Euskalduna lantegiaren historia osatzeko ahaleginetan diharduela adierazi zigun, lantegi horrek izan zuen garrantziak horrenbeste merezi duela ohartaraziz.

ZORIONAK ETA  
ESKERRIKASKO RAMIRO!



Jendez beteta zegoen San Telmo Museoeko hitzaldi gelan izendatu zuten Ramiro museoaren Ohorezko Lagun.

## Atletismoa

# Esnaolak dominatu zuen lasterketa



Lasterketa osoan zehar joan zen buruan Zigor Esnaola soraluzetarra.



Nagusien mailan aurreko urteetan baino dexente herritar gehiago izan zen.



Gorka Ojea.



Alana Berraondo.



Iñaki Arribilaga.

Abenduaren 7an jokatu zen Atxa Memorialaren 22. edizioa. 134 Korri-

kalarik hartu zuten parte eta nagusietan Zigor Esnaola izan zen garaile.

### SAILKAPENA

#### NAGUSIETAN

1.-Zigor Esnaola 30,57 min.

#### Infantiletan

1.- Iñaki Arribillaga 8,33 min

1.- Alana Berraondo 10,11 mi

#### Benjaminetan

1.- Gorka Ojea 4,21 min.



Regina Maiztegiren atxiloketa salatu eta bere askatasuna aldarrikatu zuten Atxa Memorialeko antolatzaileek.

## Futbito txapelketako semifinalak

Azken hiru asteburuetan partiduak jokatu ostean, dagoeneko erabakita dago aurtengo Gabonetako Futbito Txapelketako semifinalak zein taldek jokatu dituen:

Torpedo - Artifices

Malas Hiervas - Gamusinos

Oraindik zehaztu gabe daude semifinaletako eta finaleko partiduak noiz izango diren baina datozen egunotan jokatzeko asmoa dute antolatzailleek.



## EMAITZAK

### Futbola

SORALUZE 0 - Zumaiako 1 (Erre.)  
Sailkapenean: 13. 16tik, 10 punturekin

SORALUZE 1 - Behobia 2 (Juben.)  
SORALUZE 5 - Zumaiako 3 (Juben.)

Orereta 1 - SORALUZE 2 (Kadet.)  
Sailkapenean: 5. 7tik, 9 punturekin

### Esku pilota

SORALUZETAKO TALDEA (KADETEAK)  
Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa (Azken partidua izan da)  
Garzia - Atxotegi 22  
Ordiziako Taldea 13

### Haritz Laskurain

Eibarren Santo Tomas Egunean  
Berraondo - Imaz 18  
Chafee - Laskurain 6

### Erlai Txurruka

Eskukominarekin jarraitzen du.

### Iñaki Jauregi

Aste honetan deskantsua izan du Gipuzkoako Txapelketan.

## AGENDA

Esku pilota, Kiroldegian  
EGUAZTENA, 24 (16:30ETAN)

### Benjaminak:

1. eta 2. postuak: **Ander-Iñaki**  
3. eta 4. postuak: **Ibai-Martin**

### Alebinak:

1. eta 2. postuak: **Haritz-Andoni**  
3. eta 4. postuak: **Iker-Jokin**

### Infantilak:

1. eta 2. postuak: **Aitor U.- Ander**  
3. eta 4. postuak: **Aitor B.- Joanes**

### Futbola

URTARRILAREN 4AN  
Elgoibar - Soraluze  
Allerru - Soraluze  
Amaikak Bat - Soraluze

## Gasteizko maratoian



Igandean Gasteizen jokatu zen 21 kilometroko maratoian, Unai Larrea-tegik 1:28:55, Gonzalo Ariznabarretak 1:27:20 eta Joxe Agustin Leturiondok 1:39:21 eko denborak egin zituzten.





# 2003



# URTEARI ERREPASOA





## Larreategiko zubibidean arazoak



URTARRILA

2003ko urte hasieran, Eibar-Gasteiz autopistako Larreategiko zubibidea eraikitzen ari zirela gertatu zen istripua. Astebetuz Maltzagarako bidea itxita izan zen. Zubibideko arazoak atzerapen handiak eragin dizkio autopistari.

## Egunkariaren itxiera



OTSAILA

Otsailaren 20an, Juan del Olmo epaileak Euskaldunon Egunkaria itxi zuen. Zuzendari-tzako 10 kide atxilotu zituzten. Mobilizazioak izugarriak izan ziren, herrian eta Euskal Herri osoan. Juanjo Uria gartzelan dago oraindik.

## Azkona Espainiako Txapeldun



MARTXOA

Arrate Azkonak 12,78 Metroko jauzia egin zuen Oviedon eta Jauzi Hirukoitzeko Espainiako Junior mailako txapelketa irabazi zuen otsailean. Martxoan egin genion elkarrizketa Eibarko Unben kirol gunean.

## 13. Korrika "herri bat geroa lantzen"



APIRILA

Apirilaren 6an igaro zen 13. Korrika Sorluzetik. Ehundaka sorluzetarrek parte hartu zuten Korrikan eta AEK-k Korrika Kulturaren barruan antolatutako ekitaldietan. "Herri bat geroa lantzen" izan zen goiburua.

## EAJ-EA garaile hauteskundeetan



MAIATZA

Maiatzaren 25eko hauteskundeetan EAJ-EA koalizioak lortu zituen botorik gehien (1.263) eta Alberto Sudupe izendatu zuten alkate. Ezker abertzalearen zerrendak ilegalizatu zituzten, Sorluzeko Askatasun Haizeak ez.

## RK Zulo Jaialdiaren arrakasta



EKAINA

Ekainaren 27an RK Zulo Jaialdia egin zen Gaztetxean. Poesia, bertsoak eta batez ere musika landu zituen jaialdiak. Herriko musikariz osatutako 8 taldeek zoratu egin zuten Gaztetxean bildu zen jende pila izugarria.



## 2003ko Santa Ana Jaiak



UZTAILA

2003ko Santa Ana Jaietan eguraldi eta umore ona izan ziren nagusi herrian. Asier eta Iñakiren omenezko pelota txapelketa, futbito txapelketa, danborrada, balsa jeitsiera eta bakailau lehiaketa izan ziren ekitaldi jendetsuenak.

## Bero handiak eta lehortea



ABUZTUA

Uztailean eta abuztuan bero handiak (zaharrak ere ezagutzen ez zituzten modukoak egin zituen Euskal Herri osoan. Beroak eta lehorteak kalte handiak eragin zizkien baserritar askori. Hala ere, herrian ez zen ur mozketarik izan.

## Elgoibarko zapatu arratsaldeak



IRAILA

Irailaren azken asteburuan Elgoibarko tren estazioan bi gaztek izandako istripuak, Elgoibarren zapatu arratsaldeetan izaten den gazteen pilaketaren eta droga kontsumoaren inguruko eztabaida piztu zuen herrian.

## Bolondres eskaera Eitzakotxotik



URRIA

Eitzakotxo baserriko Oier Garmendia mutikoaren burmuineko lesioak eragindako ezintasunak gainditzeko lanaren berri jakin genuen eta tratamenduak agintzen dituen ariketak betetzeko bolondresen beharra dutela ere bai.

## Regina Maiztegi gartzelaratua



AZAROA

Azaroaren 18an, Garzon epaileak aginduta, Espainiar Poliziak, Regina Maiztegi atxilotu zuen Sevillan. ETari lagundu izanaren akusaziopean Soto del Realgo espetxean dago epaiketa noiz egin dioten ez dakiela.

## Ramiro Larrañagari omenaldia



ABENDUA

Abenduaren 10ean, Donostiako San Telmo Museoa Ohorezko Bazkide izendatu zuen Ramiro Larrañaga plazentziar historialaria. Besteak beste, armagintzaren inguruan egindako azterketa lan handiagatik egin zioten omenaldia.

## SUKALDARITZA IKASTAROA



## EUSKAL JAI



## SANTA ANA JAI



## GAZTAÑERRE



# Pil-pilean 2003



**U**rte oparoa izan da aurtengoa Pil-pilean Kultura Elkartearendako. Komunikazio, kultura, euskara eta gazteria arloak landu ditu elkarteak. Euskalgintzarekin eta herriko gainontzeko elkarre eta erakundeekin elkarlanean soraluzetarrei eskeintza zabal eta kalitatezko bat egitea lortu dugu, izan ditugun baliabideak oso urriak izan diren arren. Besteak beste, hauek dira arlo bakoitzean burutu ditugun ekimenak:

### KOMUNIKABIDEAK

#### Prentsa Idatzia

- Pil-pilean Hamabostekaria: 20 ale
- Santa Ana Jaien Gehigarria
- Ugaraxo: 8 ale

#### Irratia

- Arrate Irratiko irratsaioa.

#### Internet

- KZ Gunean web orri bat dugu.

### KULTURA

#### Urtarrila

- Bertso Egunerako autobusa.

#### Otsaila

- Ilean Santa Ageda Eskea.

#### Martxoa

- 4an Musikoplantzarren kalejira.
- 7an Udaira Sagardotegira Irteera.
- 14an Ander Lipusen "Ardoaz" Monologoa.
- Sukaldaritza Ikastaroa Mahastian.

#### Apirila

- Amodio Gutunen Lehiaketa.

#### Maiatz

- Euskal Jai Astea
- 29an "Euskal Zibilizazioa" hitzaldia.
- 30ean Kantu Afaria.

#### Ekaina

- Euskal Jai Astea
- 6an "Euskaraz Lardaskatzeko Mainerak".
- 7an Euskal Jai Eguna: Urrats eta Iruñeako Oberena dantza taldeak, herri bazkaria, sagardo dastaketa eta Imuntzo eta belokirekin erromeria.
- 24an San Juan Bezpera.

#### Uztaila

- Santa Ana Jaiak
- 25ean Bertsolariak balkoitik balkoira, herri bazkaria, herri olinpiadak eta kulero eta kantzontzillo antxixiketaldixa.
- 26an Baltsa jeitsiera.
- 27an Merengada.

#### Urria

- Bertso Paper Lehiaketa
- 31an Bertso Afaria "Bar katu" emanaldiarekin.

#### Azaroa

- 4an Soraluzeko Baserrien Gidaliburua.
- 8an Gaztañerre Azoka: Babadator: Baba Txapelketa, Herri Babajana eta erromeria "Tximeleta" taldearekin.
- 10ean afaria AEK-ko ikasleekin.
- 15ean Txan Magoa.

#### Abendua

- 19an BBKren "Zakil alu hori!" poesia emanaldia.
- 24an Olentzero eta Mari Dominginen etorrera eta gabonetako oparien eskeintza.

### EUSKARA

- Korrika Kulturala antolatzen parte hartu dugu.
- Egunkariaren alde 9.000 euro bildu dira herrian. BERRIA sortu da.
- Bai Euskarari prozesuan parte hartzen dihaduten 31 gizarte eragileak konpromisoak zehazteko fasean daude.

### GAZTERIA

- Udaleku itxiak Lizarran, uztailean.



# Ana Isabel Uribe Aperribai

*“Mendixan perretxiku bila ibiltzia da gehixen gustatzen jatana”*

**Etixeruntz zoiala Santana kalean egin dogu topo gure ale honetako “biktimarekin”. Hasera batean susto aurpegixa jarri dosku Pil-Pileanekuon enbajada korapilotsu bat ete zalakuan baina oinguan bere erantzunak bakarrik bihar genduzela esan dotsagunian bizkor asko alaittu dau aurpegixa. Antxixika eta prixaka ibili arren, umore onez erantzun dotse egin dotsaguzen galdera motzeri.**

**Izena, abizena, adina eta lanbidia.**

Ana Isabel Uribe Aperribai, 47 urte, Udaletxian nabil lanian zaharreri laguntzen.

**Koloria, zenbakixa, animalixia eta abesti bat.**

Zenbakixa 7 xa , animalixia ardixa, koloria urdina eta abestixa Mikel Laboaren “Hegoak ebaki banizkio”.

**Ze gustatzen jatzu egittia zure denbora librian?**

Ba mendira juan eta perretxikuak topau, hori da gehixen gustatzen jatana.

*“Neretako kultur etxe bat falta da herrixan eta umiendako be ez dago ezebe”*

**Hiru desio gabonak datozela eta.**

Ba, osasuna eta bakia, bikin nahikua eta espezialki bakia.

**Gustoko menua.**

Baba gorrixak , berdin dosta bakarrik edo odoslostiak, berdin dosta sakramentu barik be! ja,ja,ja!

**Txikitako oroitzapenen bat.**

Ba bai, behin edurra egin zaben eta baserrira goiazela bidean etxe bat zeguan, eta tximenixatik keia urtetzen zan eta ze egin ginuan, hartu elur bola bat eta bota tximenixara eta keia emendau egin zan. Eta orduan “pies pa que os quiero” hasi ginan korrika gora, ez harrapatzeko.

**Telebistako saio bat.**

Albistegixak.

**Ze da bene benetako egixa.**

Mundua zoratuta daguala.

**Zeri ez zontsake ezetzik esango?**

Bidaia bati.



**Ana Isabel Uribe Aperribai**

**Aholkurik onena?**

Ba ez egitteko egin nahi ez dozunik.

**Ze egingo zinue miloi bat eurokin?**

Uff asko da, ez dakit , kotxe barrixa erosi, daukatena destartalauta dago eta.

**Ze ez zinue inoiz egingo.**

## Bertso Begiz

*Herrixagatxik galdetu eta fenomenal dago dana Urte berrixan osasuna ta pakia nahi dittuana. Baba gorrixak hobe sakramenturik gabe Bidaiatzeko afana Gargi dauana hegalik bare hegan egin ezin dana.*

**Matxin**

*(Doinua: Iparragirre abila dela)*

Ba.... Ez dakit, hori zaila da esaten.

**Soraluze....**

Neretako fenomenala.

**Ze falta jako Soraluzeri.**

Neretako kultur etxe bat falta da.

Plaentxin ez dago ezebe umiendako eta.

**JABIER ALBERDI**

HARATEGI  
ARTISAU ERARA  
ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN  
PRODUKTUETAN.



**KALITATEA**

Errebal kalea 24  
Tfnoa 943 75 19 32

**GAZTELUPE**  
taberna

tel: 943 75 20 81





## Argazki zaharra



## 1960ko Gabon Bezperako bazkalostian

**A**rgazki hau 1960ko abenduaren 24an etaratakua da. Cortijotarretako gaztetxo baten urtebetetzia zala eta, bazkalosteko meriendatxua egin zeben euren etxian. Ardaux goxua, kafia eta pastak jan eta eskolara kolore gorri gorrixekin. Goitik eta erlojuaren orratzen norabidian: Aitor Lasa, Maite Gorostidi, Ruben Cortijo (+), Rebecca Cortijo, Ezoz Benito, Eva Cortijo, Judith Cortijo, Izaskun Lasa eta Saul Cortijo (haurra).

*Joseba Gorostidik lagatako argazkia*

## Lehiaketa

Zer dago faltan zer soberan argazki honetan?



*Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!*

DEITTU  
943 75 13 04 ra

*Aurreko alean...*



Erantzuna: Gabolatx kaleko etxebizitza bateko balkoi eta leihoak falta dira.

Eta irabazlia: LURDES MAIZTEGI



# VIDAL

## frutadenda

Etxaburueta 2  
Tel. 943752055

## Mendata taberna

**Berezitasunak:**  
*Txipiroiak, Barazki Menestra, Gixauak...*

**Asteburuan plater konbinatuak**  
*Enkarguak etxerako*  
*( bazkariak eta afariak )*



Kalebarren, 5  
Tfnoa 943 75 13 87



# Ugaraxo

**HELDU DIRA  
OLENTZERO ETA MARI DOMINGIN**



Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldizkarixa elkarlanian  
**ALDIZKARI HONEK UDALAREN DIRULAGUNTZA JASOTZEN DU**  
**EUSKARA BULTZATZEKO**



## Gure eskola

Gu bost urteko ikasleak gara. Oporretatik etorri ondoren landu dugun lehenengo gaia "Eskola" izan da. Taldeka, gure ikastetxean dauden gela, andereño eta ikasleak ezagutzen hasi gara. Beheko taulan, guk jasotako datoak azaltzen dira.

























Ikusiko duzuenez, gure ikastetxean (frontoian) orokorrean 93 neska eta 71 mutil gaude.

Lan hau egiten hasi ginenean bi helburu izan genituen:

Bat. Ikastetxea ondo ezagutzea, hau da, gelak, irakasle eta ikasleak non kokatuta dauden.

Bi. Lana egin eta datoak jaso ondoren, Lehen Hezkuntzako 2. Mailako ikasle eta irakurleei azaldu genien, gure helburua gelaren bati azaltzea bait zen.

## Gure eskola

|                    |  |   |  |  |   |
|--------------------|--|---|--|--|---|
| <b>3. Solairua</b> | <b>5 urte B</b><br><i>Itziar</i><br> <br>10      6 | <b>2. maila B</b><br><i>Ana</i><br> <br>6      9  | <b>1. maila</b><br><i>Pili</i><br> <br>12      4     | <b>2. maila A</b><br><i>Mari Karmen</i><br> <br>7      7 |   |
| <b>2. Solairua</b> | <b>4 urte A</b><br><i>Irene</i><br> <br>12      6  | <b>4 urte A</b><br><i>Maite</i><br> <br>4      7  | <b>3 urte B</b><br><i>Mila</i><br> <br>5      8      | <b>4 urte B</b><br><i>Ezoz</i><br> <br>9      9          | <b>Guztira</b><br> <br>93      71 |
| <b>1. Solairua</b> | <b>5 urte A</b><br><i>Mertxe</i><br> <br>10      6 | <b>2 urte A</b><br><i>Itziar</i><br> <br>9      4 | <b>2 urte B</b><br><i>Miren</i><br> <br>9      5 |  |   |





## Txiki Inkesta

# Zer eskatu dotsazu Olentzero eta Mari Domingini? eta erregieri?

**JULEN GOMEZ 5 URTE 3. MAILA B**

Spidermanen ukabilak eta gasolinazko patinetia. Erregieri Radiokontrollezko Autua.



**ALBA PEREZ 5 URTE 3. MAILA B**

Bikixen autua. Besterik ez dot eskatu ze ume asko gare munduan eta bestela danendako ez da helduko.



**NEREA REVUELTA 5 URTE 3. MAILA A**

Barby zisneen aintziran eta bere unikor-  
nioa. Eta erregieri  
bikixen autua.



**FELIX HERAS 5 URTE 3. MAILA A**

Motor bat eta Hulk-  
en ukabilak. Erregieri  
autua.



## Udazkena joan da



Konturatu gabe Udazkena joan zaigu eta Negua etorri. Kanpoan hotz egin arren gu epel epel egoten gara gelan eta hargatik egiten dugu barre eta jolas etengabe.



## Burdin Bidea

5. eta 6. Mailako ikasleok, azaroaren 7-an, burdinaren bidea ezagutzera joan ginen. Txango honetan, Zerain, Mirandaola eta Ormaiztegi bisitatu genituen. Burdin bide honetan, gauza asko ikusi genituen burdinari buruz. Zerainen burdin meategiak eta labeak ikusi genituen. Labe hauek, oso handiak ziren. Burdinkia egur ikatzarekin batera labean landuz metala lortzen zen. Lortzen burdina lantegietara eramaten zen. Horregatik inguruan lantegi asko sortu ziren.



### MIRANDAOLA

Mirandaola Legazpin dago, han, lehen erabiltzen zituzten tresnak eta burdina zelan lortzen zuten aztertu genuen.

Mirandaola museo bat da, astean behin, igandeetan, martxan jartzen dute jendeak ikus dezan nola egiten zen burdina aintzinako zeharroletan.

Orain azalduko dizuegu han ikasi genuena.

Zeharrolen funtzionamendua Zeharrolak bi turtukoiez hornituak zeuden. Horietako batek aldaparoan bildutako uraren eraginez birak ematean, labeko suari haizea ematen zien hauspoak mugitzen zituen. Beste turtukoiak berriz, ingudearen gainean kolpeka iharduten zuen borra edo gabia mugitzeko erabiltzen zen. Gabiaren golpe erritmoa biziago edo mantsoago izango zen aldaparoko txingoa jasotzean libratzen zen ur txorrotaren arabera.

### HIZTEGIA:

- BURDINKIA: lehengaia.
- LABEA: Berredukzioa geratzen den tokia.
- TURTUKOIAK: Ura hauen gainean erortzean sortutako mugimenduak tresneria mart-



xan jartzen zuen.

- ARDATZA: Turtukoia mugimendua garbi eta hauspoetaraino eramaten zuten.
- HAUSPOAK: Labeari haizea ematen diote.
- GABIA: Lortutako burdin oreka edo agoari forma emateko erabiltzen zen mailua.
- INGUDEA: Gabiaren azpian

lanerako erabiltzen den burdinazko pieza.

- OLAGIZONA: Burdinolako langileak dira. Olagizon bakoitzak bere betebeharra zuen.


### Ekoizpena

Burdinoletoako produkzioaren zati handia esportaziora zuzenduta zegoen; euskal burdina ospe handikoa izan zen European zehar. Bestalde, inguruetako lantegiek burdina zenbait tresna erabilgarritan bihurtzen zuten: nekazari tresnak, sukaldaritzakoak, iltzeak... e.a.

### ORMAIZTEGI

Azkenik, bazkalostean, Ormaiztegiara joan ginen. Han zubibidea ikusi genuen. Zubi hauek 1864. Urtean egin zituzten eta bertatik, Madrildik Iruñeara zijoazen trenak igarotzen ziren. Ia dena burdinez egin dago.






5

# Ugaraxo

## Jolasera joan gineneko argazkiak



ño! A ze plaentxiar pila batu ginen Pin-en! urtean behin bakarrik joate hori zergatik den jakin nahi genuke? xaguari gaztai pixkat jaten utzi eta gero ken-tzea modukoa da! Ez da ba ume tranpa izango?



Urtero bezela, hemen gaude Haur Hezkuntzakoak Donostialdera etorrita, Txiki Parkera; ederki gabiltza bola artean, txirris-tan, koltxonetan,... hau gozamenena! Gainera laster Olentzero ere badator eta oso pozik gaude!



Iajuuu! hau da gozamenena hau! hemen ibili ahal bagenu egunero! hiru lau bola eramaten ahaleginduko gara behintzat eta ezin bada, amari eta aitari eskatu eta horrelakoxe bolaz bete behar dut etxeko logela! horixe egin behar dut bai!



## JOXE MARTIN

JOXE MARTÍN BADOALA MENDIRA  
JOXE MARTÍN BADOALA MENDIRA  
RIA RIA KATAPLAN BADOALA MENDIRA

ETA BIDEAN KRABELINAK HARTU DITU  
ETA BIDEAN KRABELINAK HARTU DITU  
RIA RIA KATAPLAN KRABELINAK HARTU DITU

ERREKA BAZTERREAN TOPATU DU LAMIA  
ERREKA BAZTERREAN TOPATU DU LAMIA  
RIA RIA KATAPLAN TOPATU DU LAMIA

OH GAZTETXO EMADAZU LORE BAT  
OH GAZTETXO EMADAZU LORE BAT  
RIA RIA KATAPLAN EMADAZU LORE BAT

EMANGO DIZUT NIREKIN EZKONDUZ GERO  
EMANGO DIZUT NIREKIN EZKONDUZ GERO  
RIA RIA KATAPLAN NIREKIN EZKONDUZ GERO  
EZKONDU ZIREN ETA TXINAN BIZI DIRA  
EZKONDU ZIREN ETA TXINAN BIZI DIRA  
RIA RIA KATAPLAN ETA TXINAN BIZI DIRA

## Kantuz jolas



## Gure Olentzero

Aurten Olentzero bat egin dugu gelan. Lan asko hartu dugu egiten eta azkenean saldu egin dugu. Autopistako sarreran jarri dute Bergaran. Handik jendea presaka pasatzen da eta inork begiratuko ote dio? jende gaixoa!



### HARITZ ALBISUA

Pertsona ezagun bat hori da Olentzero, Ikatza ekarriko dau txarra izanez gero. Munduan barrena du hainbeste bezero Ia laguntzen dotxan Jaingoikuak edo.


(Doinua " Gaur goizian jeiki naiz")



### JON GABARRI

Gabonak heldu dira ilusios beterik ta Olentzero heldu zaigu kartia ein barik. Baina guriak dare zakuan sarturik, eta karteletan daude gauzak idatzirik ia laguntzen doskun nahiko alaiturik.

(Doinua "Esne Saltzalearena")



7

## Ugaraxo

## Txiki Inkesta

## Zer izatia nahi dozu nagusitan?

MIKEL JUARISTI 6.B 11 URTE

Futbol jokalarixa.  
Gustatzen jatalako  
eta diruagaittik.  
Bestela pelotarixa  
edo atleta.



KATARINE BERRUETA 6.A 11 URTE

Arkitektua.  
Gustatzen jatalako  
eta nere etxia egitte-  
ko. Bestela argazkila-  
rixa, jende famosuari  
argazkixak etaratze-  
ko.



ANE LADERAS 6.B 11 URTE

Abeslarixa. Dirua ira-  
bazten dalako eta  
telebistan azaltzeko.  
Bestela ileapaintzai-  
lia, gustatzen jatala-  
ko.



OIER FERNANDEZ 6.A 11 URTE

Futbol jokalarixa.  
Diru asko irabazten  
dalako. Futbolistia  
ezin banaiz izan, pelo-  
tarixa izango naiz.



## Esaiguzu; zer gauza aldatuko zenuke mundu honetan?

Aurten ume pobrieri olentze-  
rok erregaluak ekartzia eta  
hola ondo biziko dira (Irene).  
Zikinkeria gutxiago egotea.  
Ume guztiak dena jakinda jai-  
otzea. Eskolarik ez egoteko.  
Umeentzat gauza gehiago ego-  
tea: parkeak... Kontaminazioa  
murriztea (Ohiane A., Ane K.,  
Ainhua P. eta Mainer). 6. maila-  
koak onenak gara (Ane L.,  
Maitane, Leire eta Irene).

Mundua era onena aldatzeko  
ez fabrikako drogarik eta ziga-  
rrorik. Dendetan gauzak gares-  
ti daudenez merkeagoak jar  
ditzakete (Ane Alvarez).

Mundua aldatzeko jolas  
gehiago fabrikatu eta merkea-  
go saltzea (Jennifer). Aznar  
aldatuko neban (Aitor A.).

Nik munduari kenduko nion  
etxekolanak eta jende txarra  
(Ana Vergel).

Konpondu herria! (Melisa).







## Lehiaketa

### Plazentziar ezaguna

Esaguzu zein dan argazkiko plazentziar ezaguna eta zein den bere lanbidea!

**Aurreko aleko irabazlea  
NORA ARIZAGA**

Bialdu e-mail bat  
[pilpilean@euskalnet.net](mailto:pilpilean@euskalnet.net)  
edo deittu  
943 75 13 04ra



**Aurreko Aleko Plazentziar Ezaguna**  
**ARRATE AZKONA** atleta zen.

Arrate oso gazterik hasi zen kirol munduan garai-pen garrantzitsuak lortzen; 15 urterekin Espainiako kadete mailako errekorra lortu zuen alturan (1,78m) eta jauzi hirukoitzean (12,32m). Aurten Espainiako Txapeldun gelditu da junior mailako hirukoitzean (12,73m).

Arratek egunero egiten du kirola.

## Irakasleari azterketa

**Ramon Oregi**

**43 urte**

**Eibarren**

**(Soraluzen jaioa)**



**1- Irakasle ez bazina zer izan nahi zenuke?** Oso gustora nago irakasle moduan. Gaztetan gustoko nuen erakustea eta ez naiz damutzen.

**2- Zer egiten zaizu zailena eskolak ematerako orduan?** Arazoak dituen jendearekin oinarritzko lorpenak lortzea.

**3- Zer erakutsi dizute ikasleek?** Gauza asko, pazientzia, entzuten ikastea, maitasuna... Eurekin elkarri adarra jotzen ibiltzia oso gogoko dut.

**4- Irakasle on baten ezaugarriak?** Norbere lanean buru belarri sartzea eta orduz kanpo ere lan asko egitea. Militantzia hori beharrezkoa da.

**5- Ikasleak zigortzen al dituzu?** Bai. Eurekin hitzeginaz eta ulertu araziz. Ikasi ez badu berarekin batera ikasiz.

**7- Zer da irakasle batek inoiz egin behar ez duena?** Kontrola galdu. Lanbide honetan oso garrantzitsua da pazientzia.

**8- Txikitako bihurrikeria bat?** Goguan daukat gaztetan monjetan genbizela eta behin harrika egin zotsagula maisuen etxiari.



# ayerbe

LIBURUDENDA



Tfnoa. 943 20 22 30

**Zezenbide 9an Eibar**

**"Erabili itzazu gure ETXEBIZITZA KONTUA**

**eta AURRIKUSPEN PLANA"**




- zerga gutxiago ordaintzeko!
- Etorri oparien bila!
- Errenta aitorenaren simulazioa inolako konpromisorik gabe.



*urte berri on!*

Santa Ana, 18  
Telefona: 943 751 238  
Faxa: 943 753 103  
20590 Soraluze/ Gipuzkoa

Zurekin elkarlanean

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA





Fresaketa teknologia



SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

# "gabonetarako oparirik berezienak"

aukeratu 4 oparion artean:

**Zaharregia,  
txikiegia  
agian**  
prezioa: ~~20~~ €  
15 €, 8€ bazkideentzat



**Karidadeko  
Benta**  
prezioa: ~~15~~ €  
10 €, 8€ bazkideentzat



**mal de ojo  
"mestijaia"**  
prezioa: ~~15~~ €  
10 €, 8€ bazkideentzat



**mandarin  
dotore**  
prezioa: ~~30~~ €  
28 €, 26€ bazkideentzat



Beharapenezko opariak eskuratzeko bidea:  
1- 943 751304 telefonora deituta (Pil-pilean).  
2- pilpilean@euskalnet.net mezua bidalita.  
3- Abenduaren 24an Iriondoneko kale kantalean.  
(Eskeintza hau urtarrilaren 12rarte izango da zabalik)

